


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Existentziaren balantzak



Iratxe Retolaza



Dorrearen eta penduluaren arteko ituna

AMAIA ITURBIDE

Erein, 2016
Poesia

Dorrearen eta penduluaren arteko ituna poema-liburuan ugari dira Amaia Iturbideren poetikaren arrastoak: tematikari begira, giza existentziaren zauriak eta ezinegonak ditu hizpide nagusi; sinboloen esparruan, izan badira erromantizismoan maizturiko imajinarioak (desertua, itsasoa, ibaia eta zuhaitza), bainabadira abangoardiak xehaturiko irudiak ere (ausiabantza, hondakinak, harea eta espazio urbanoak). Halaber, komunitate zein nortasun hautsiak bihurtu ohi ditu poesia-gai Iturbidek. Baina, liburu honetan puskek edo atalek ez dakarte gogora osotasun galdu bat, edo errealtate hautsi bat, baizik eta mundua antzemateko modu jakin bat: “Mundua iragarritz bezala atalez atal antzeman”. Puska edo ataletan arreta jarritz, ikusmen angeluak biderkatzera jotzen du. Azken batean, puska urratuekin mosaikoa osatzeko deia egiten du, puskek sormenerako osagai funtsezko bihurtuz.

Iturbidek kezka existentzialak gorpuztera jo du berriro ere; baina, oraingoan nortasun ibiltari, zalantzati zein balantzakorrak hauskor baino sortzaileago irudikatu ditu. Zentzu horretan, itunaren eta orekaren ikuspegi berriak eraiki ditu. Ituna puskek josteko edo elkartzeko ariketa sortzailea da, baita orekari eusteko etengabeko borroka ere: oreka ez baitu zerbait egonkor eta estatiko gisa irudikatzen, balantzaka sorturiko gune ezegonkor gisa baizik. Balantza horretan, munduaren formetan bilatzen ditu bere ibiliak, bere urratsak, bere nortasuna eraikitzeko apurrak: nork bere urratsekin espazioan utzitako arrastoez dihardu, eta baita espazioek zein objektuek jendearen-

gan utzitako arrastoez ere. Ibilbide horretan paisaia urrunak irudikatzen ditu (esaterako, Egiptoko paisaiak zein mitologia egiptoarra ere bihurtzen ditu nortasunean arakatzeko bide); baina, baita paisaia hurbil eta garaikideak ere (besteak beste, Bilboko arkitektura garaikidea ispilu du poetak).

Halaber, poema-liburu honetan behaketan zein ikusmenean oinarrituriko ezagutza-bidean arakatu du: “Bizitza arkatzez idatzitako eskuizkribua bailitzan/ irakurtzen duten begiez”. Ikusmena gailentzearen ondorioz, arte bisualek garrantzi handia hartzen dute poema hauetan, eta esaterako, ugariak dira pinturaren inguruko erreferentziak (joe-ra artistikoak, marrazketa-teknikak...). Are gehiago, nortasunaz eta existentziaz aritze-ko, mapa bat edota kartografia bat eraiki du, barne-ezinegonak ikusgarri eta ukigarri bihurtzeko asmoz. Min eutsiei forma eman die, eta hain zuzen ere, existentziaren oina-zeak arkitektura eta kartografia bilakatzeko trebetasuna erakutsi du beste behin. ■

Amaia Iturbide (Bilbo, 1961) idazlea.

